

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Irailak 27, 119. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




L. M. URIZAR:
"Gure helburua
independentzia
da"

Kilometroak 91

Bergaran, urriaren 6an

Jabier



A R R A S A T E
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



IKASTOLAREN 25. URTEURRENA

D E I A

Ikastola sortu zenetik 25. urte betetzen direla eta, gure mende laurden honetako historia osatzeko lehenengo urteetako materialik baduzu (argazki, bideo, aldizkari, liburu, etab.) mesedez, jo guregana. (Tfnoak: 79 26 40 eta 79 61 04)

Eskerrik asko.


SUKALDARITZA



SEXUALITATEA

Emalea: Arantxa Lizaso "Plan Mondragón"-en elikadura arloko partaidea

Urriak 1: Jakien kontserba eta potentzia
Urriak 8: Izozketa eta desiozketa



SUKALDARITZA

Emalea: Mari Tere Altuna sukaldari ezaguna
Urriaren 15etik Abenduaren 10erarte
Matrikula 1000 pta

Izenematea aurrez AEDn
Arratsaldeko Getatik 9etara

Prestatutako jakiak bertan
zozketatuko dira.



Emalea: Amara Vázquez
Urriaren 3an

Sexualitate ikastaroa
"Sexualitatea worberareu bizipenetatik"
5 saiotan
Matrikula mugatua izango da.



ANTOLATZAILEA: AEDko "Ekin" Emakume taldea

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Iñaki Galdos

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanca Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Inmigrazioa ala inbasioa?

Titulu horrekin azaldu da Frantziako egunkari batean, frantziarren presidente izandako Valery Giscard d'Estaing jaunak sinaturiko artikulua mamitsu eta leherkorra. Eztabaidak berehala piztu du grina; iskanbilak hasi dira kale eta komunikabideetan. Frantziako giza egitura dardar ipini ohi duen arazoak bortizkeria osoz astindu du berriz ere, aldameneko estatuan gero eta beldur handiagoz aztertzen ari den fenomeno.

Estatistika ez-ofizialek diotenez, hamalau milioi etorkin bizi dira gaur egun Frantzian, hau da, populazioaren laurdena baino gehiago. Aipatutako artikulua irakurri dudanean, Euskadin gertatzen ari zaigun efektua etorri zait gogora, gainditu beharreko distantzia eta baldintzak kontutan izanik, inmigrazioak gurean are gogorkiago jo bait du, azken berrogei urteotan batipat. Arrazakeriari buruzko edozein susmo merketatik libre sentitzen naizela, Giscard d'Estaingek legekotzat jotzen dituen zenbait ideia — ez denak — neure egiten ditut, begiak ireki eta hausnarketa txikiren bat eragiteko, egoki daitekeen lekuan.

Etorkinek, lehendabizikoz, frantsesa jakin beharko lukete, nazionalitatea lortu ahal izateko. Diodan, halaber, arau honekin ados daudela frantziar alderdi guztiak, eskuin zein ezkerrekoak. Beraz, nazionalizatuak erabaki politikoetan esku hartu ahal izateko, nazionalitateak berez ahalbidetzen duen eskubidea hizkuntzaren gaineko betebeharraren menpe ipintzen da. Horrek, gure kasura aplikatuz, zera esan nahiko luke, hauteskudeetan erdaldun hutsak ezingo lukeela

botorik eman. Baina, beude lasai erdaldunak eta bertan jaiotako izen-deitura "basko"koak ere: lege hori ez da guretzat hezurmamituko.

Nazionalitatearen estatusa eskuratu aurretik, bertan bizi izaten hamar bat urte eraman beharko luke interesatuak. Era horretan, ez lirateke gertatuko saharauriarren erreferendumarekin ematen ari diren azpijoko zikinak, Marokkotik deserturaino marokkoar saldo handiak mugieraziz. Beharbada, hain urruti joan beharrik ez daukagula gogoraziko dit norbaitek. Gehiegi izango al litzateke hamar urtetako epe hori guretzat ere esijitzea?

Nonnahi eta beti, frantziar nazionalitatea lortu duten hiritar berriek frantziar nortasuna defenditu beharko lukete, geldiunerik gabeko haren garapenean saiatuz. Euskaldunok —herri bezala— berezko nortasunik ote dugun ere zalantzan jartzen ari den une ilun hauetan, Giscard d'Estaingaren proposamenak giza sentimenduen erlatibotasuna azalerazten du. Atzera begira egon beharrean, aurrerantz joko bagenu, euskal identitatea ez litzateke hain erraz salgai erakutsiko. Elkarrekin egin ahal izango genuke lan, herriarengatik, eta ez soilik alderdikeriak itsututa.

Hiru urrats horiek ziurtatuta, ez al litzateke Euskadi independente izango? Eskakizun horiei izan behar al diete beldur gure politikariek? Lege naturalak eta seme-alaba jator izateko betebeharrak zuzendu beharko gintuzkete independentzia horren bila... hizjoko polit baina ustelkorrak ahaztuz.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



ETXEPARE - BILINTX

LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta oparidenda

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

ZANGITU
C. B.

PINTURAK ETA
PAPER PINTATUAK

Olarte, 29
Arrasate
Tfnoa: 79 81 82

D. Irala
Bergara
Tfnoa: 76 19 54

PAZI-OLA S.A.

Zaldizpe kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa 79 29 91

Eskoriatzako Udalan HBk eta EAJk ez dute komisiorik hartu

Hasiera batean eman zitzaizkien komisioekin ados ez zeudela eta, adostasun batera iristen ahalegindu ondoren, Eskoriatzako Udala osatzen duten bost alderdi politikoetatik bik, HBk eta EAJk hain zuzen, komisiorik ez hartzea erabaki dute. Hau honela, geratzen diren hiru alderdiek hartu behar izan dute komisio guztien zama. Besteak beste, Kultura eta Euskara Komisioen ardura EAk hartu duenez, alderdi hau, Eskoriatzan euskarak bizi duen egoera hobetzen ahaleginduko delakoan gaude. Eginkizun horretan lanean diharduen "Axtroki" taldeak, aipaturiko helburua lortzeko edozein zereginetarako prest dagoela adierazten dio alderdi honi.

"Axtroki"
(Eskoitzan Euskaraz)

ETB eta ekaitzak

Ez dakit zein sorgintxoren eraginez, Arrasaten ekaitza sortzen den bakoitzean, ETB ikusten egonez gero, seinalea eten egiten da. Denbora luzerako gehienetan. Espainiako telebistekin, ordea, ia inoiz ez da horrelakorik gertatzen, eta gertatzen bada berehala konpontzen da arazoa.

Ez dakit nori leporatu behar zaion errua, ETB berari seguruen. Posible da horren telebista gazteak horren azpiegitura eskasa izatea? Euskaldunok ez dugu, dagoeneko, diru mordoska bat ordaindu telebista duina izateko? Eskaintzen zaiguna ordaintzen dugunarekin parekatzen da? Behar bada, beste herri batzuetan bai, baina Arrasaten ez.

Ikusle batek

Arauk errespetarazi

Arauk eta legeak jartzea ondo dago, baina gero errespetarazi ere egin behar dira, bestela alferrikakoak gertatzeaz gain, gerora begira arau guztiek galtzen dute eraginkortasuna eta autoritatea.


Badituzte gogoan honen adibide pare bat:

1) Otalora kalean, *Etxelanen* aurrean, eskuinaldean aparkatzeko debekua jarri zen, hain zuzen ere, aurrera jarraitu nahi dutenek horretarako lekua izan dezaten, ezkerretara hartu behar dutenen atzean itxaroten egon beharrik gabe. Baina seinaleari ez zaio sarritan kasurik egiten, eta hor autoak egoten dira aparkatuta. Nori dagokio hor eskusartzea?

2) Urkulun ere ezin da autoz ezkerraldetik ibili, inguruko biztanle edo bidearen nolabaiteko «erabiltzaile» izan gabe. Baina autozale gibelandi asko ikusi ohi da presako horman. Nork eskatu behar dizkie horiei kontuak?

Ea, bada, gure galderek erantzunik izaten duten!

I.M.



Zein irtenbide emango zenioke autobidearen auziari?



Gorka Eskibel
(Ikaslea)

Nire ustez, logikoena erreferenduma egitea litzateke.



Elvira Elorza
(Etxekoandrea)

Autobidea beharrezkoa dela iruditzen zait. Nik segituan konponduko nuke, egiten hasi eta kitto.



Paquita Valdes
(Etxekoandrea)

Autobidea beharrezkoa dela esan digute, baina nik pertsonalki oraindik ez dakit behar hori egiazkoa den ala ez. Lehenik hori argitu beharko lukete. Egitekotan, ingurugiroari kalte gutxien egingo dion aukera bultzatu beharko lukete.



Ladislao Ginaldo
(Jubilatua)

Ez dagokit niri irtenbiderik ematea, horretarako beste batzuk daude aukeratuta eta. Dena dela, egiten dena ondo egin behar dela iruditzen zait, guztia kontuan hartuta.

NH-ZKE Koop. E.

ACEIG-FECEIko kidea
Arrasateko Hizkuntz Eskola

INGELES A FRANTSES A ALEMANA

Azken postu libreak

Kurtso-hasiera: urriak 1, asteartea

Araba Etorb. 4 Arrasate Tfnoa: 79 01 32

**Basabe
jatetxea**

**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**

Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84
77 07 94

**Jai onak opa dizkiegu
aretxabaletar guztiei**

centers

**AZAFATA ETA
TURISMO-GIDARIEN
ESKOLA**

Tfnoa: 28 35 34

Siervas de Jesus (Pasaje de San Pedro, 1)
GASTEIZ

T

Fotokopiatu
Enkoadernazioak
Planoen erreproduzioa
Ofiseta
Ferreries, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larriakiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZTA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO
ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO
INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkartea	79 87 77



27

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai: *Zandalee* (10.30)
- Hitzaldia eta filme-emanaldia, "Euskal Mendizaletasunaren Historia". Monterreren, arratsaldeko 7etan.
- Garagartzako jaiak: Gaueko 10.30etatik aurrera dantzaldia "Txintxarri" taldearekin.
- Aretxabaletako jaiak: Gaueko 10.30etan, frontoi berrian rock jaialdia.
- Udazkeneko jaialdi andaluz, gaueko 10.30etan Amaian.
- Goardiako farmaziak: Morales, San Andres.

28

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai: *Zandalee* (5-7.30-10)
- Garagartzako jaiak: Eguerdiko ordubatean luntxa; arratsaldeko 7.30etan bertso-saioa Lizaso eta Egaña bertsolariekin.

**Kirol
Agenda**

Pilota

• • •

- Musakolako pilotalekuan, larunbateangoizeko 10.30etan, klubun arteko txapelketa. *Arrasateko* eta, *Soraluzeren* arteko partiduak, alebin, infantil eta kadete mailetan.

Txirrindua

• • •

- Aretxabaletan igandean goizeko 10etatik aurrera, txirrindulari-lasterketa.
- Bergaran, larunbatean arratsaldeko 5etatik aurrera, Gipuzkoako Mendiko Bizikleta Txapelketa.

Gauetz, "Eguzki" taldearekin dantzaldia.

- Aretxabaletako jaiak: Arratsaldeko 7etan antzinako bataioaren antzepeña. 9eta herri-afaria eta ondoren dantzaldia.
- Nazioarteko Mendi Eskultura Erakusketaren inaugurazioa, Monterreren eguerdiko ordubatean.
- Helduentzako Txotxongilo emanaldia, Bergarako Taun Taun taldearen eskutik, "Bikate" lana. Amaia Antzokian, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

29

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai: *Solos con nuestro tío* (7-10)
- Garagartzako jaiak: Auzo bazkaria, eta briska eta mus txapelketa.
- Eusko Alkartasunaren sorreraren bostgarren urteurreneko ekintzak: goizeko 11etan San

Franzisko elizan, meza nagusia; eguerdiko 2.30etan herri bazkaria.

- Besaideko monumentu berriaren inaugurazio-ekintzak goiz guztian zehar.
- Aretxabaletako jaiak: Eguerdiko 12.30etan, kalejira eta 7etatik 10ak arte Baden bjkotearekin dantzaldia.
- Goardiako farmaziak: Español, Iturriotz.

30

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai: *Solos con nuestro tío* (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

1

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai: *Solos con nuestro tío* (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gauetz: Guallar, Bergara.

2

ASTEAZKENA

• • •

- Hitzaldia, "Ikaslea ondo ebatutzen dugu?", Amaia antzokian arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gauetz: Estella, Bergara.

3

OSTEGUNA

• • •

- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gauetz: Mozos, Bergara.

Mendia

• Besaide eguna

Aurrera doaz Besaideko monumentu zaharraren errehabilitazioa eta berriaren inaurazioa ospatzeko antolatutako ekintzak.

Ostiralean, hilak 27, euskal mendizaletasunari buruzko zine-emanaldia izango da Monterronen, arratsaldeko 7etan. Larunbatean, eguerdiko 12.30etan, inaugurazioaren ekintza instituzionala izango da Udaletxean.

Egun berean, eguerdiko 13.30etan, nazioarteko eskultura erakusketaren inaugurazioa izango da Monterronen. Erakusketa hau Urriaren 13 arte egongo da zabalik.

Azkenik, igandean, Besaide eguna izango da. Goizeko ospakizunei 10.30etan, txalaparta-saioarekin emango zaie hasiera. Ondoren, Meza Nagusia izango da, Aramaio, Arrasate, Elorrio eta Atxondoko abesbatzek kantatua. Meza ostean, Euskal Mendizale Federakuntzako Lehendakari den Pako Iriondoren agurra izango da, euskal dantzen erakustaldiarekin bukatzeko.



SAN MIGEL JAIK

Garagartzza

San Migelak direla eta, Garagartzarrek astebururako jai egitarau zabala prestatu dute. Etxafleroen jaurtiketak eta dultzaineroek alaitutako kalejiraren bitartez, gaur, hilak 27, jaietako hasiera emango zaie. Gauean, 10.30etatik aurrera, "Txintxari" taldearen eskutik dantzaldia izango da, eta horrenbestez jaietako lehen eguneko ekintzak bukatutzat emango dira.

Larunbat eguerdian, 12etan, meza izango da eta ondoren luntxa agertzen diren guztientzat. Arratsalden berriz, haur-jolasak eta bertso saioa, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsoariekin. Gaueko 10.30etan su artificalak ikusteko aukera. Ondoren, "Eguzki" taldearekin dantzaldia.

Jaietako lehen eguneko emango zaie amaiera. Eguerdiko 12etan meza nagusia; bukatutakoan, neska-mutilen arteko futbol partidua, eta 2.30etan herri-bazkaria. 7.30, jaietako bukaera emanez, briska eta mus txapelketak.

Jaialdia

• Jaialdi andaluza

Gaur, hilak 27, Amaia antzokian eta Al-Andalusek antolatuta, udazkeneko lehen jaialdi andaluza burutuko da. Jaialdiari gaueko 10.30etan emango zaio hasiera. *Alegria de la Sierra* talde rozieroak, *Sueños de Andalucía* dantza-taldeak eta *Al-Andalus* abesbatzak parte hartzeaz gain, Carmen Corpas, Paco Guerrero, Paco el Canito, Miguel Berlanga eta Luis Carrascok ere kanta-saioak eskainiko dituzte.

Txotxongiloak

• Bi Kate

Larunbatean, gaueko hamar terdietatik aurrera, Amaia antzokian *Taun-Taun* txotxongilo taldearen *Bi Kate* lana ikusteko aukera izango da. Normalean, txotxongilo lanak umei zuzentzen bazaie ere, *Bi Kate* lana helduei zuzendua dago, bertan bi agure zaharren bizitza kontatzen delarik. *Taun-Taun* txotxongilo-taldea 1987garren urtean sortu zen Bergaran, eta Iñaki Azkargorta, Karmele Perez eta Iñaki Matak osatzen dute.

Ikastaroak

• Bideoa

Eskoriatzako Irakasle Eskolak, Bideogintzari eta beroni hezkuntzan eman dakioken erabilerrari buruzko ikastaroa antolatu du. Ikastaroari, urriaren 14ean emango zaio hasiera eta otsailaren 28an bukatuko da. Ikastaroaren helburua, lehendik ikus-entzunezkoen munduan trebaturik dagoen jendea gaikuntza arloari begira espezializatzea da. Formakuntzaren teoria, Bideoa Hezkuntzan, Edizioa, Antolakuntza eta Dokumentazioa... eta antze-

rako gaiak aztertuko dira ikastaro horretan.

• Hezibide

Hezibideak antolatuta, datorren hilaren 2an eta 3an, ebaluaketei buruzko ikastaroa burutuko da irakasle garentzat. Ikastaro horretan, gehienbat, hezkuntza munduan sartutakoek hartuko dute parte, baina jende arruntarentzat ere hitzaldi bat antolatu da: hilaren 2an, arratsaldeko 7etatik aurrera, Amaia antzokian "Ikaslea ondo ebaluatzen al dugu?" izenburupean.

Lehiaketak

• Jose M. Arizmendiarieta VI. lehiaketa

Gizabidea fundazioak, J. M. Arizmendiarieta seigarren lehiaketarako deialdia egin du. Aurtengo gaia *Gerra-gatazkak aztergai* izango da. Lanak, ikasmilen arabera, hiru taldeetan banatu dira: A) Batxilergo Orokorra eta BBBko ikasleak (1-2); B) Goi Batxilergoa, Heziketa Teknikoa eta BBBko ikasleak (3). C) Unibertsitate mailako ikasketak.

Lan guztiak makinaz aurkeztu beharko dira, lehen taldean gutxienez 7 orrialde, bigarrenetan 15 orrialde, eta hirugarrenetan 30. Sariak ere, mailen arabera emango dira, 45.000, 55.000 eta 65.000. Lanak bidaltzeko epea azaroaren 11an bukatuko da, eta sariak azaroaren 29an ezagutaraziko.



“.....
 Estatu Batuetako *Fortune* (*Business Risk International*) aldizkariak negoziotarako arriskutsuak diren herrialdeen artean Estatu espainola 9. postuan jartzen du. Aurretik Peru, El Salvador, India, Turkia, Kolonbia, Filipinak, Sri Lanka eta Ipar-Irlanda daude eta atzetik Nikaragua. Zergatik Espainia arriskutsu? “Ongi antolaturiko euskal separatistek turismoari erasotzen diote lehergailuz. 92ko Joko Olinpikoak ere helburu izan daitezke”.

Honen aurrean, *Javier Mongelos*-ek, Arrasateko Kooperatiba-Taldearen buruak, zera zioen Irailaren 22ko DEIAN: “Euskal Herriari buruzko irudi txarra sortzen du biolentziak, honela, garatzeko-aukerak galtzen ari gara eta, ondorioz, pobretze erlatibo baten prozesuan gaude. Baina egoera ez da adierazten duten bezain beltza, Euskadik diferentzial positiboa bait du bere kultura industrial, maila profesional, ekimen-gaitasun eta agente ekonomiko eta sozialen arteko orekatatik”.

“.....
 Aretxabaletan egin dugun esperientziatxoa azalduko dut. Haurrak ingelesko akademiataro bidaltzeko bailaran dagoen boomarekin moskeatuta, 8 bertsoko sorta bat egin genuen bertso-eskolan, *Ingelesarenak* titulupean. 1000 kopia atera genituen eta gitarra baten laguntzaz egindako grabazioaren 10 kopia kasetetan. Kaseteak Aretxabaletako 3 tabernatan, Arrasateko 3 taberna eta denba batean, eta Almen ikastetxean banatu genituen bertako musika-ekipoetan jar zitzaten. Erantzuna ona izan zen eta aste batean, taberna horietan ibiltzen den jendeak entzun zituen Ingelesarenak. Paperak ere utzi genituen tabernatan eta eskola, ezagun, etab.i banatu. Horretaz gain, Ingelesarenak Arrasate Press-en ere argitaratu ziren”.

(Jon Sarasuak, Bertsolari aldizkarian)

Zeintzu dira Garagartza auzoan dituzuen arazo, behar eta egitasmo nagusiak?



Garagartzan, plaza izan zen egindako azken lan handia. Ordutik, lan txikiak besterik ez dira burutu gure auzoan. Hala ere, baditugu behar handiagoak eta hauek, lau dira bereziki.

Alde batetik, plazatik pasatzen den trafikoa murriztu nahi dugu. Egun askotan, 200 kamioi pasatzen dira plaza-tik eta egoera hori aldatu egin behar da. Kobate aldeko enpresek eta Udalak izenpetutako akordio bati esker, bi urteren buruan, plazatik igaroko ez den bide bat eraiki beharko dute aipatutako enpresek. Arazo hau, gaur egun auzoak duen garrantzitsuena izanda, konponbidean ikusten dugu, zorionez.

Bestalde, plazaren aldamenen dauden lursailetan, pilotaleku bat eraiki nahi dugu. Lursail hauen ondoan, jolas-toki bat eraikitzen ari gara auzolanean. Uste dut, jolas-toki honekin eta pilotaleku berriarekin nahiko ondo beteko lirakekeela auzotarrek eta bisitariek dituzten beharrak.

Auzoetxea egokitzea da gure beste nahietako bat. Guk, orain dugun etxabehearekin nahikoa dugu baina ondo legoke goiko pisuak egokitzea, udaleku gisa eta erabiltzeko.

Azkenik, komunikabideen arazoa dago. Arrasate eta Garagartza espaloi baten bidez lotu beharko lirakeke. Elizatik Atxabalpera egina dago espaloia. Orain, bukatzea falta da. Auzoetatik erdialderako autobus-zerbitzuaren beharra ere ikusten dugu.

Anton Okina,
 Garagartza auzoko alkatea.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

PEÑACOB
 Auto-Eskola

Zarugalde, 46
ARRASATE
 Tfnoa: 79 29 93



Memesa
79 42 22

Aretxabaleta

• San Migel jaiak.

Ostiralean, *Akulu*, *La Perrera* eta *Sociedad Alcoholic*a taldeen rock jaialdiak emango die hasiera Aretxabaletako San Migel jaiari. Hurrengo eguneko ekintzarik aipagarriena, antzinako bataioa izango da. Iaz, antzinako ezkontza izan zen eta lortutako arrakasta ikusirik bataioa antolatzea pentsatu dute herriko kuadrilek. Bataioaz gain, meza, Xake-txapelketa eta Kamp dantzaldia izango dira, besteak beste.

Igandean, txirrindulari lasterketa egingo da, goizeko 10etan. 12etan, meza Parrokian eta ondoren, bolo txapelketa eta kalejira. Jaiak, *Baden* bikotearen dantzaldiarekin bukatuko dira.



Oñati

• San Migel jaiak.

Asteburuan hasiko dira Oñatin San Migel jaiak. Ostiralean, Mikel Deunaren Pilota-Txapelketaren finalerdiak jokatu dira.

Larunbatean, tanborrada izango da ekintza nagusia. Gaueko hamarretan hasiko da eta ondoren, goizaldeko 2.30etatik aurrera, gau-pasa egingo da.

Igandean, San Migel eguna, txistulari taldea eta Udal musika banda hasiko dira kaleak alaitzen, goizean goiz. Goizeko 11etan, Meza Nagusia izango da eta ondoren herriko musika-bandaren kontzertua. Arratsaldean, autokros erakusketa eta profesionalen arteko pilota-partiduak izango dira. Iluntzeko 7.30etan, musika bandak dantza-soinuak eskainiko ditu foru enparantzan. Eguna bukatzeko, Berakatz Band taldearen dantzaldia izango da.

Asteleheneko ekintzen artean, goizeko eta arratsaldeko sokamuturrak, kuadrilen bazkaria eta gauean Izadi taldeak eskainiko duen dantzaldia dira aipagarrienak.

Bergara

• Hamabostaldi kulturala

*Kilometroak 91*ren atari gisa Bergaran antolatu duten hamabostaldi kulturala aurrera doa. Ostiralean, hilak 27, Taun-Taun taldearen antzerki saioa izango da gaueko 10.30etan Novedades aretoan. Larunbatean, jolas iharduerak izango dira goizeko 11etan eta mendiko bizikleten Gipuzkoako txapelketa arratsaldeko 5etan. Gaueko 10.30etan, Bergarako musikari eta dantzarien jaialdia izango da, *Urretxindorrek* besteak beste. Iganderako Duathlona presatu dute gaztetxoentzat.

Asteartean, urriak 1, kirolari buruzko mahainguru izango da, arratsaldeko 8etan UNEDeko aretoan. Asteazkenean, Musika-Eskolako ikasleek saioa eskainiko dute seminarioko elizan. Osteguna, zinearen eguna izango da. Arratsaldean, haurren saioa izango da eta iluntzean nagusia. Ostiralean, kalejira egingo dute, txaranga eta zankoek alaitua.

Gurea taberna

Durana, 32. ARETXABALETA
Tfnoa: 79 20 64

KIXKOR TABERNA

Mitarte, z/g
ARETXABALETA
Tfnoa: 77 10 81

Bodega Riojana

Mitarte, 12
ARETXABALETA



ARETXABALETA

URBALTZ TABERNA

Mitarte, 19
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 79 79

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua

Santa Cruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

❑ **Mambo 1 taldea asmo berriekin**
Mambo 1 taldeak aurrera pausua ematea erabaki du, barne-erabat sakon eta luzearen ondorioz. Horretarako eman duen lehen urratsa, elkarte bezala legalizatzea izan da.

Hemendik aurrera, hiru arlo ezberdinetan egingo du lan *Mambo* -ek: modan, dantzan eta ikuskizunetan.

Dantzari dagokionez, ikastaro eskaintza zabal eta iraunkorra prestatu nahi dute urtarrilerako.

Arrasaten antolatu izan duten Moda Jaialdia berritzea ere nahi dute *Mambo 1*-ekoek. Arrasateko esparrua gainditzea da taldearen helburu nagusia. Egun hauetarako udazkeneko jaialdia egiteko asmoa bazuten ere, ez da posible izan.



Ikuskizunen arloan, taldearen nahia jaialdi, erakusketa eta agerraldiak antolatzea da.

❑ **Argazki-lehiaketa**

Gazteen Grinak lelopean Arrasateko udalak antolatu duen argazki-lehiaketan lanak aurkezteko epea gaur, ostirala, amaitzen da. Jadanik 21 partehartzailek aurkeztu dituzte lanak, guztira 47 argazkirekin.

Beste urteetan bezala, erakusketa egingo da aurkeztutako lanekin, baina aurten Nazioarteko Eskultura Erakusketa dela eta, Monterronen izan beharrean kontzejupean egingo da, urriaren 7tik 13ra arte. Sari-banaketa, urriaren 4ean izango da Udaletxeko pleno arloan, arratsaldeko 7etan.

Txandaka

BESTE TXIRRINDULARI BAT HILDA
 BAILARAKO ERREPIDEETAN


Joan zen ostiralean, hilak 21, berriro ere kamioi batek bizikleta bat harrapatu zuen. Eta beste batzuetan bezalaxe, penagarriena, bizikletan 14 urteko gazte bat zegoela, eta hil egin zela.

12 urte nituenik bizikleta-zalea naizen aldetik, ez dut egoera hau justifikatzeko modurik aurkitzen, ez ezerk, ez inork, ez bait dizkigu itzuliko betirako galdu ditugun txirrindulari lagunen biziak; ezta beste trafiko-istripu batzuetan galdu-takoenak ere.

Ez dut berpiztu nahi txirrindulari eta autozaleen arteko eztabaida. Badakit, nik neuk bezalaxe, txirrindularien % 60ak automobila ere erabiltzen duela; eta neure esperientziak esan dezaket gizakion portaera aldatu egiten dela oinez, bizikletaz, motorrez edo beste ibilgailu batez ibiltzean. (Hau psikologo eta soziologo adituek ere konstatatu dute).

Errealitatea oso sinplea da, baina oso tristea, eta hitz bakarraz adieraz daiteke: Axolagabekeria. Geure grina txarrak kontrolatzeko gai ez garen bitartean, eta *Indartsuenaren Legeari* jarraitzen diogun bitartean, nik neuk ez dut konponbiderik ikusten.

Konbentziturik nago, eta datu bidez frogatuz, oinezko edo txirrindulariren bat zauritu edo hil duten istripuen % 95 ebita zitezkeela auto-



J. M. Garcia (*)

mobilzaleek arreta handiagoz jokatu izan balute. Batzuetan egia da ez dagoela guztiontzat lekurik, baina askoz egia handiagoa da, "ez dakigula ahulagoa errespetatzen".

Lerro hauen bidez, bakoitzak dei egin nahi nioke arreta handiagoz ibil dadin (arrikuak gutxitzeko momentuz dugun

irtenbide bakarra bait da); baina baita hurbileko Erakundeei ere: Deba Garaiko Udalei eta Mankomunitateari. 1978-79 inguruan, Deba Garaiko Zikloturistok "iradokizun-gutuna" bidali genien Erakunde hauei: errepideen berregiturapena egiterakoan, arriskurik gabe bizikletaz eta oinez ibiltzeko aukera ere kontuan izateko eskatu genien. Garai hartako arrikuak, errealitate «tragiko» bihurtu dira gaur egun.

Zoritxarrez, penagarria izan zen erantzuna. Udal batek bakarrik erantzun zigun bere "asmo onak" agertuz, baina denbora pasa da eta asmoak asmo huts.

Gaur egun, guk proposaturikoaren antzeko irtenbiderik ia ezinezko da, kostu handiagatik.

Gure doluminik sentikorrenak Kepa Manteca eta Vicente Sanchez-en senitartekoei.

(*) *Jose Manuel Garcia.*
Deba Garaiko Zikloturista-Elkartekoa.
 (Erredakzioan itzulia)


Taldeak osatzeko jendea behar da:

- Alfabetatze (arratseko 7etatik 9etara)
- EGA (goizeko 9etatik 12etara)

Beste taldeetan ere bada lekurik
 Garibal Etorb., 14-3. ARRASATE Tfnoa: 77 03 69



aek
 Izan erakaldun!



Hau da Yoshin Ogata-k egindako eskultura

Dena prest Besaide-egunerako

Igandean inauguratuko da monumentu berria

Igandean izango den Besaide-egunean, monumentu berriaren inaugurazioa eta zaharraren errehabilitazio edo birgaikuntza ospatuko dira.

Besaideko monumentu zaharra 1955ean inaguratu zen, bi urte lehenago Mont-Blanc-erako lehen euskal espedizioan hil ziren lau mendizaleen omenez. Hortik aurrera, urtero izan da Oroimen-Eguna Besaiden.

Lehenengo urteetan Besaide inguruko ikuspegi ederrak ezkutatzat joan ziren, bertan landatutako pinuak hazten ziren heinean. Duela hamar bat urte, arazo hau aregotu egin zen eta mendizale batzuk irtenbideren bat aurkitu nahian hasi ziren. Hala ere, 1989 arte ez zen gauzatu errehabilitaziorako lehen aurreproiektua. Lehen egitasmo hau Mankomunitateari eta Euskal Mendizaleen Federakuntzari aurkeztu zitzairen

eta hauen adostasun eta laguntza lortu zen proiektua gauzatzeko.

Proiektuaren aurrekontua 30 milioi pta.takoa zen hasieran, baina azkenerrako igo egin da. Dirua, Yoshin Ogata japoniarrak egindako eskulturan eta Besaide inguruko lursailen erosketan joan da batipat.

Azken helburua, Besaide inguruan 25 hektarea garbitzea da, baina oraindik 10 bakarrik daude erosiak. Hala ere, Besaide-egunean jabe gehiagorekin akordioa ixteko esperantza dute lan honetan ibili diren Mankomunitateko arduradunek. Dena den, ez dira oraindik erositako pinu guztiak botako, izenpe-tutako kontratuaren arabera, jabeek merkatuaren egoera hobetu arte itxaroteko eskubidea bait dute. Guztira, beraz, zazpi hektarea daude garbituak eta birlandatuak oraingoz.

Usteak uste

Gogoan dut, datorren eguakotxean Maritxu Kajoi eguna ospatzen dela eta, izango diren ekintza ezberdinak iragartzen dituen esku-egitarauak badakarrela, besteak beste, larrialdietarako telefonorik. Aurreko urtekoan ez dakit, baina aurtengoan seguruenik, Arrasateko Agurtzane-Rosario gehienera artean ez da Udaltzainen telefonorik agertuko.

Arrasateko "Bako"ri eskaintzen zaion gau international honen hasieran izanda ere, ezbeharririk gertatzen bazaizu, alferrik joko duzu udaltzainengana, aurtengo lan-egutegiaren arabera gaueko 9etatik aurrera inor ez dago eta Udaletxean, ezta jai-egunetan ere.

Pentsa, jazo behar ez zaizun hori goizaldeko orduetan suertatzen dela; orduan ere, txanpanaupetzak alferrik eramango zaitu Udaletxera. Goizeko 7ak arte itxaron ala kinkile-roen gainetik Villa Anparantz abiatu, zeuk aukeratu, baina kontuz putz egitearekin.

JON GARAI

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Santxo Abarka, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ileapaindegi mistoa

Erguin, 15 etxabehea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Hainbat datu

• Deba Garaiko Udal-Elkartea, An-tzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Berga-ra, Elgeta, Eskoriatza, Gatzaga eta Oña-tik osatzen dute.

• Aramaio, Arabakoa izanda ere, hasieran Udal-Elkarteko partaide izan zen, baina gero aldendu egin zen.

• Deba Garaiko Udal-Elkartea 1976garren urtean sortu zen.

• Aurten, Udal-Elkartearen aurre-kontua 510 milioikoa izan da, horietatik 75 inbertsiotarako erabili direlarik.

• Zaborra jasotzeko, Udal Elkarteak bost kamioi dauzka.

• Bailarako biztanleko, iaz 253 kilo zabor jaso ziren.


• Beira jasotzeko, bailaran 142 ontzi daude jarrita, eta iaz 369 tonelada jaso ziren.

• AKEIko erraustegian, iaz 37.962 tonelada zabor erre ziren.

• Zubillagako hiltegitik, iaz 2038 tonelada okela atera zuten: %87 behi-tarrena, %4,6 arditarrena, %3,1 txerri-tarrena eta %5,3 zalditarrena.

• Zubillagako hiltegian 15 lagunek lan egiten dute. Iaz 67 milioiko aurre-kontua izan zuen.

• Udal Elkarteak antolatutako Lantegi-Eskoletan 70 gazte dabilta, lanbide-hastapeneko ikastaroetan 60, eta lanerako prestakuntzako ikastaroetan beste 285.



Mankomunitatearen aurreko zuzendaritza batzardea

EAJk hiru karguak bereganatu

Kargu bakoitzeko botazio bat egitea erabaki zen

Deba Garaiko Udal-Elkarteko le-hendakari berriaren hautaketa, pentsa zitekeena baino luzeago joan zen. Bai-larako hamabost ordezkariak Udal Elkarteko aretoan bilduta, lehenik bat-zordea osatu zuten. Ondoren, lehen-dakariaren aukeraketari ekin zitzaion. Udal Elkarteko barne-estatutuek lehen-dakaria aukeratzeari buruz ezer argi-tzen ez dutenez, aukeratzeko moduari buruz bi jarrera kontrajarri ageri ziren. Alde batetik, HB eta EAK botazio baka-rra eskatzen zuten, boto gehien lortzen zuena lehendakari izango zen, bigarre-na berriz lehendakariorde, eta hiruga-

rrena diruzain. Bestalde, EAJ hiru kar-guetarako hiru botazio desberdin egi-tearen alde agertu zen. Proposamen bie-tatik demokratikoagoa zein ote zen ez-tabaidatzen aritu eta gero, azkenean, botazio bidez, EAJk proposatzen zuena onartu zen.

EAJk Udal-Elkartean zortzi or-dezkari ditu, gainontzeko alderdiek beste, beraz ez zuen inolako eragozpe-nik izan hiru karguak eskuratzeko. Jose Mari Loiti lehendakari berriak bi edo hiru asteren buruan berriz biltzeko deia egingo zuela adierazi zuen, batzorde desberdinen banaketa egin asmoz.

PARLANCE

THE-ENGLISH-LANGUAGE-CONSULTANTS

%80k azterketak gainditu

**Cambridg Unibertsitateko
ingeles-azterketetan PARLANCEko
ikasleek lorturiko emaitzak.
Zorionak guztioi!**

Olarte, 6 ARRASATE Telefaxa: 77 06 83

**Taberna lanetarako,
neska euskalduna
behar da.**

Tfnoa: 945 - 44 50 86






Mankomunitateko Gobernu-Junta berria

Arrasateko laugarren ordezkaria izendatzeke oraindik



Jose Mari Loiti
(EAJ, Arrasate)
Lehendakaria.



Patxi Basauri
(EAJ, Elgeta)
Lehendakari ordea.




Jose Luis Irizar
(EAJ, Oñati)
Diruzaina.



Jabier Gabilondo
(EAJ, Bergara)



Xabier Gallastegi
(EAJ, Bergara)



Isidro Palacín
(EAJ, Oñati)



Angel Iturbe
(EAJ, Oñati)




Iñaki Lete
(EAJ, Antzuola)




Bixente Etxeberria
(EA, Arrasate)



Aitor Antxia
(EA, Aretxabaleta)




Josu Barandiaran
(EA, Eskoriatza)




Xabier Zubizarreta
(HB, Arrasate)



Aitor Irure
(HB, Aretxabaleta)



Albaro Esparza
(EE, Bergara)



Eugenio Otxoa
(Independientea,
Gatzaga)

IOSU

Gozotegia
Croisantegia
Harategia
Urdaitegia

Etxeko berezitamnak:
• *Dilasko erreak*
• *Prestatutako jakiak*
(aurrez enkaraga daitezke)

Mitarte, 1 ARETXABALETA. Tfnoa: 77 03 08

□ Pintura-irakaslea

Monterron kultur etxean egin ohi diren marrazki eta pintura-ikastaroetarako irakaslea aukeratzeko deialdia zabaldu da. Irakasle honek, Monterrongo ganbaran izaten diren ikastaroen ardura hartuko du bere gain, izenemate eta matrikulazioena barne. Bere ordainsariak, ikasleen matrikulak izango dira.

Irakaslegaiak, curriculumak eta ikastaroetarako duten proposamenak aurkeztu beharko dituzte urriaren 11 baino lehen. Aukeraketa, Kultura Batzordeko elkarrizketen bidez egingo da. Euskararen ezagupena ere baloratuko zaie izangaiei.

□ Zarautzetik berririk ez

Arrasate Presseko ale hau kaleratzear zegoela, ez zen Pedro Aranburuzabali buruzko berririk. Asteazkenean, ertzantzaren helikoptero bat ibili zen Paisaiatik Zarautzerainoko kosta arakatzen, baina ez zuen ezer lortu. Asteazkenean, Ertzantzako urpekari talde bat eta babes zibileko partaideak ere ibili dira Zarautzen, baina hauek ere ezer aurkitu gabe.



Aurten ez da umerik izango Ferixalekuko eskola publikoan

Ferial Ikastetxea ikasle barik

Eskolaren etorkizuna Gobernu Autonomoaren esku

Azken urteetan nabaritu zitaion joerari jarraituz, aurtengo ikasturterako, Ferialeko Eskola Publikoa ikasle barik gelditu da. Ondorioz, ikasleentzat atek itxi behar izan ditu.

1991-1992 ikasturteari begira, hogetaimaika umek eman zuten izena Ferial ikastetxean; horietatik hamazortzik zortzigarren mailan, eta gainontzekoek beste mailetan sakabanatuta. Argi dago matrikula-kopuru horrekin eskola irekitzea ezinezkoa dela, beraz ixtea erabaki da. Erabakiaren ondorioz,

Ferialeko ikasleak herriko ikastetxetan banatu dira; irakasleak, berriz, eskolan bertan daude, zerbitzu-lanetan.

Ikaslerik ez badauka ere, administratiboki eskola zabalik dago. Gauzak horrela, baliteke hezkuntzaren erreformaren ondorioz, Ferialeko Eskola Publikoa maila ertainetako ikasleentzat egokitzea. Dena dela, erabaki hori Gobernu Autonomoaren esku egoteaz gain, luzerako joan daiteke. Labur esanda, Ferial ikastetxeko ikasle-ezari ez zaio konponbide azkarrik antzematen.


ONGI ETORRIA JAI OBERRIEI

Elkoro de Tena, *Ane*. Irailaren 15ean.
Ruiz de Azua Zubizarreta, *Janire*. 16an.
Fernandez Presas, *Raul Fernando*.
Irailaren 17an.
Quiros Martinez, *Kevin*. 17an.
Ajuria Ugalde, *Alaitz*. Irailaren 18an.

ITURRIOTZ taberna

**GIRORIK
JATORRENA !!**

Tfnoa: 79 16 04



Kontzeziffo, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

URONDO
elektrizitatea




Nafarroa Etorbidea, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 78 15

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak




Urriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39



Jabier

G

ezurra badirudi ere,
panpinak balio handikoak
gertatu zaizkie ikerlariei
beren lanetarako.
Antropologoez,
etnologoez, historialariek...
sarri aztertu dituzte
panpinak erantzunen baten
bila.
Historiaurrean
buztinezkoak, grekoen eta
erromatarren garaietan
hezur edo marfilezkoak eta
Erdi-Aroan egurrezkoak
izaten zirela jakinda, asko
jakin dezakegu garai haiei
buruz. Baita
Berpizkundeko panpinen
jantzi dotoreak ikusita ere.
Oraindik goiz xamar izango
da gaur egungo panpinak
aztertzen hasteko, baina
egunen batean jakintsu
batek argazki hau ikusten
badu, aguro igerriko du
maitasunik gabeko
gizartean bizi izan ginela.
Hori bai, praktikoak, inor
baino praktikoagoak.



General Loma Plaza 4, 3.
Tfnoa: 945 - 23 33 99
GASTEIZ

Lanbide Heziketarako Zentrua
LH1 TITULU OFIZIALA
Ileapaindegia / Estetika

Osasun-Ikasketarako Zentrua
Klinika lag. / Puerikultura
/ Kiromasala



ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
ARRASATE Tfnoa: 79 98 84

txutxumutxuak



Besaideko eskultura bukatu eta gero, artean harriak soberan gelditzen zirela ikusirik, hauek aprobetxatzea pentsatu da. Zertan? Udalaizteko maketa bat egiten.



Aurten ere, **Jesus Mari Plazaolak** lan bikaina egin zuen Oñatiko Nazioarteko Ardi-Txakur Txapelketan. Udalako artzaina eta *turko* bere txakurra irabazteko zorian izan ziren, baina ez zuten asmatu denboraren barruan ardiak eskortan sartzen. Ondorioz, bigarren postuarekin konformatu behar, baina hala ere egindakoa-gatik pozik.




Epelide

◀ **Jose Ramon Larrañaga** eta **Alicia Bolinaga**, maiatzean Loiolara joan ziren ezkontzera. Eztei-bidaia askoz ere urrunago egin zuten, Floridaraino!

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Izen
PROPIOAK



● **Jose Marla Loiti**, arrasatearra, izango da datozen lau urteotan Deba Garaiko Udal-Elkarteko lehendakaria. Loiti EAJko ordezkarietarikoa bat da Mankomunitatean eta hautaketan bere partidua bere botorea gain, EEkorena jaso zuen.

● **Asier Guenetxea**, 21 urte. Aretxabaltarrak pasa den astean txirindulari profesional izateko sinatu zuen Artiach taldearekin. Guenetxeak, aurten go denboraldia Kaiku taldearekin egin du eta afizionatuen artean dozena bat lasterketa baino gehiago irabazi ditu. Aretxabaletarra sprinterra da. Eskola Politeknikoan ikasten du.

● **Josune Etxabe**, 31 urteko bedofiarra. Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza-Sailak urte betez liberatu du, *Murgiltze-Planari* buruzko azterketa egin dezan. Eskoriatzako Irakasle Eskolan magisterio-ikasketak egin ondoren, hamar urtez aritu da eskolaurrean (6 urte Aretxabaletakeo Udal-Eskolaurrean eta 4 Erguingo Herri-Eskolan).

— ▲ —▲ —
Era guztietako bisitak jasotzen ditugu erredakzioan. Pasa den astean Lekeition "Udaletik" aldizkaria egiten duten bi lagun etorri zitzaizkigun. Aste, honetan berriz, liburu saltzen etorri ziren bi nesken bisita izan genuen. Ezingo gara kexatu, libururik erosi barik orrazi piloa oparitu zizkiguten.



◀ Oñatiko **Etxe-Aundi jatetxea** fama handikoa da, baita gastronomoen artean ere. "Chaine des Rotisseurs" gastronomi elkartekoek horretaz konturatuta, Oñatiko jatetxea elkarkide egitea pentsatu zuten. Sarrerazeremonia Etxe-Aundin bertan egin zen, bazkari baten bidez, noski.

Zotz-Motz
LEHIAKETA

OHAR GARRANTZITSUA:

Adi eta erne! Oraindik ez dira agertu uztailaren 16ko zozketan saritutako zenbakiak:

62.546 (Clio autoa)

47.405 (Kanarietarako bidaia)

Kontuz! Urriaren 15ean bukatzen da epea


GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

Jose Mari Urizar

“Gure helburua independentzia da”



ziola. Horrelako gizonekin ez da erraza zer gertatuko den jakitea. Azken finean, erabakia oso gogorra gerta dakeke zinegotziori herriaren aurrean.

— Baina mozioak aurrera irteten badu, zein izango da zuen jarrera?

— Gu ez gaude mozioaren alde baina lehen ere esana dugu guk herriaren alde egingo dugula lan eta ez geniola alkatearen izenari begiratuko; beraz, baliteke alkatetza aldatuta ere, gobernuan jarraitzea.

— Asko hitzegiten da Eusko Alkartasuna eta Auzamendikoen arteko hurbiltzeaz. Nola ikusten duzue prozesu hori Arrasatetik?

— Gauza horietaz herrietan barik goiko mailetan hitzegin behar dela uste dut nik. Guk, EEkoen barne eztabaidak errespetatu nahi ditugu eta ez goaz sartzera. Arrasaten, ezin dut esan gertutasuna sentitzen dudunik. Hala ere, herrietan, ideien arabera baino, pertsonen arabera izaten da alderdien arteko gertutasuna.

— **“Alderdi batzuek nazionalista izena dute baina ez dira nazionalistak”**

Euskadiko eta Arrasateko egoera politikoan arazo kezagarriak ikusten baditu ere, orokorrean baikor agertzen da Arrasateko Eusko Alkartasunako lehendakaria den Jose Mari Urizar. Bere ustez, Independentziari buruzko eztabaida eta alkatetzaren inguruko gatazka dira une honetako auzi garantzitsuenak.

— Independentziaren inguruko eztabaida gori-gori dago. Ba al duzue moziarik aurkezteko asmorik?

— Gure helburua, independentzia da. Lotsa eta beldurrik gabe esaten dugu hori eta horren alde egingo dugulan. Hala ere, ez dugu momentuz moziarik aurkezteko asmorik. Honelako mozio bat, ez aprobatekotan hobe da ez aurkeztea eta gaur egun Arrasaten ez litzateke aprobateko. Uste dugu hemen alderdi batzuk badaudela Nazionalista izenarekin baina nazionalistak ez direnak eta horien botuekin ez bada, ez dago mozioa onartzerik. EAK, HBk eta EEk, azken honek apoiatzen badu, hamar botu dituzte PNV eta PSOEn hamaika botuen kontra.

— Mozioekin jarraituz, hor dago alkatearen aurka aurkezteko mozioa. Zein da zuen eritzia?

— Mozioa, autobidea eta Jaurlaritza berriarekin gertatzen denaren arabera aurkeztuko dela uste dut. Hortik aurrera zer pasatuko den jakitea oso zaila da, ez bait dakigu zer egingo duten EAJko zinegotziek. Guri EAJko zinegotzi batek behin eta berriz esan zigun Arzallusek eskatuta ere ez ziola PSOeri botatuko. Hala ere, handik gutxira ATBn garbi esan zuen Iglesiasi botatu

— Nola bizi izan duzue Jaurlaritzan gertatutako gatazka?

— Egia esan, ez gaitu harritu Jaurlaritzan gertatutakoak. Arzallusek, gobernu hirukoitza sortu eta hurrengo egunean gobernu horren kontra zegoela esanez egingako deklarazioak gogortzen baditugu, ez dago harritzerik. Independentziarena aitzaki bat besterik ez da izan EA botatzeko.

— Zeintzuk dira alderdi bezala Arrasaten dituzuen helburu eta asmoak?

— Gure helburuak, ahal den afiliatu gehien lortu eta gizartean zabaltzea dira. Gazte-kopuru polita ere badugu, baina ikasketak edo lana direla eta, ez dute alderdian lan egiteko astirik.

— Hala ere, alderdietan ez da ematen garai baten ematen zen afiliazio eta inplikazio maila...

— Ez. Franko hil eta berehala, jendeak presa asko izan zuen edozein alderditan afiliatzeko, nahiz eta gero borratu. Baina uste dut oraindik ere abertzale sentitzen denak afiliatuta jarraitzen duela.

Hala ere, pentsatzen dut jende askok aprobetxatu zuela EAJren zatiketa alderdietatik kanpo gelditzeko.

— Igandean jaia izango duzue...

— Bai, Alkartetxearen lehenengo eta alderdiaren bostgarren urteurrena ospatuko dugu. Hemendik aurrera, San Migel egunaren inguruan urtero egin nahi dugu jai hau. Igandean, Alderdiko Gipuzkoako lehendakaria eta idazkaria izango ditugu eta agian baita Inazio Oliberi edo Karlos Garaikoetxea ere. Lehenengo meza bat izango dugu frantziskotarren elizan eta ondoren bazkaria Alkartetxean.

“Igo tipi-tapa euskararen aldapa”

Eguraldi ona eginez gero, ehun mila pertsona baino gehiago espero dituzte, datorren urriaren 6an Bergaran burutuko den Kilometroak 91 ren antolatzaileek. Guzti horiei, ahalik eta harrera onena emateko, bergarar ugari lanean aritu da, ari da, eta arituko da, bereziki datozen egunotan.

Kilometroak lehen aldiz Beasainen burutu zen, 1977garren urtean. Hurrez gero, Azpeitia, Hernani, Tolosa, Lasarte, Donostia, Errenteria, Arrasate, Urretxu, Deba, Zarautz, Irun, Oñati eta Andoaingo herrietan ere antolatu dira *Kilometroak*. Iaz, Santo Tomas egunez, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak aurtengo *Kilometroak*, hamabostgarren edizioakoak, Bergaran egitea erabaki zuen.

Lanen banaketa

Aipatutako erabakiaren ondorioz, aurtengo *Kilometroak* Aranzadi Ikastolaren eta Mariaren Lagundia Ikastolaren esku gelditu zen. Ordutik hona, denbora dexente pasatu da eta gauzak asko aurreratu dira.

Kilometroak 91 antolatzeko, Bergarako bi ikastolek egitura zabala jarri zuten

martxan. Bidean aurrera, lehen pausoa Batzorde Iraunkorra osatzea izan zen. Batzorde Iraunkorrak, bi ikastoletako guraso, Udal, alderdi politiko, elkarte eta komu-

nikabideak erabili zituen, bergararrei lanerako deia zabaltzeko. Lanerako zerrrendak zabalik, batzorde desberdinak osatuz joan ziren. Aranzadi Ikastolak zir-

kuitua osatzea, ekonomiaz arduratzea, iraileko hamabostaldi kulturala prestatzea, zirkuituko tabernak eraikitzea, publizitatea eramatea, trafiko-aparkalekuak prestatzea eta materiala saltzea hartu zituen bere gain. Mariaren Lagundia Ikastolakoek, berriz, erosketak eta ikuskizunez arduratzeko konpromezua hartu zuten.

Batzorde desberdinek, zegozkien lanak aurrera eramantuz dituzte eta dagoeneko ia guztia prest dago, datorren urriaren 6an Bergara eskalazaleen festaleku bihurtu dadin. Dena dela, bergararrei dagokienez behintzat, *Kilometroak 91* ez da egun bakar batera mugatuko. Izan ere, Gipuzkoako Ikastolen jaien inguruan, makina bat ekintza burutu dira dagoeneko: mahai-inguruak, filme-emanaldiak, kirol-saiolak, kontzertuak... eta beste hainbat gauza.

Helburu ekonomikoak

Kilometroak edozein ediziotan parte hartu



Hauek dira Bergarako *Kilometroak* antolatu dituztenak.

duen edonork argi dauka muntaia izugarria dela: ibilbidea prestatu, kotxe eta oinezkoentzat behar beste toki aurkitu, janari eta edarien hornidura ziurtatu, egitaraua betearazi... Lan handia, duda barik; baina zertarako?

Hasieran burutu ziren *Kilometroak* haiek, ikastetxe berriak eraikitzeko dirua lortzeko helburua zuten. Urteak aurrera, heziketa osoa euskaraz emateko instalakuntza egokiak izatea lortu zenean, eta aldi berean ikastolek babes ofiziala lortu zutenean, helburuak aldatu egin ziren. Hau da, lehen helburu ekonomikoa nagusi bazen, gaur egun euskararen aldeko erreinbindikazio- eta jai-egun da batez ere. Diru asko ematen duen jaia, noski.

Bergaran lortuko den dirua Gipuzkoako Ikastolen



Ume hauek eta beste askok eskertuko dute ematen zaien laguntza osoa

Elkarte, Seaska, Nafarroako


Lagundia Ikastola eta Aranzadi Ikastolaren artean banatuko da. Beraz, argi dago diru

irabaziak, euskararen beharrei erantzuteko izango direla, hizkuntz normalizapena lortu ez duten edo erakundeen aldetik erantzun baikorrik ez duten herrialdeei laguntzeko bereziki.

20 urteko ikastola

Betiko helburuak alde batera, aurtengo *Kilometroak* bitartez, Aranzadi Ikastolaren hogeigarren urteurrena ospatu nahi da. Beste ikastola askoren moduan, hogeitortetan, Aranzadi oztopo ugari gaintitu behar izan ditu heldutasunera iritsi ahal izateko.

Etorkizunera begira, erronka berria dauka Aranzadi Ikastolak. Izan ere, Hezkuntz Sistemaren Erreformak derrigorrezko heziketa 16 urtera arte luzatzen du. Aranzadi Ikastolak erronka horri aurre egiteko planteamendua dauka. Hezkuntz kalitatea garatzeko Erreformaren oinarrian dauden printzipioei aurre egiteko, ezinbestekoa da Ikastolaren eraikinean, Erremintegiko etxean, konponketa eta moldaketa ugari egitea. Liburutegi berria; musika, plastika eta informatikako gelak; teknologi tailerra; laborategiak... Azken finean, urte osoko lanaren orde, bergararrei ondo etorriko zaizkie urriaren 6an *Kilometroak 91* ak utzi ditzakeen txanponak.



Jakin ezazun...

- Ibilbideak, 8 kilometro dauzka.
- 110.000 pertsona espero dira.
- 45 milioiko irabaziak espero dira.
- Irabazien %20a Seaska eta Nafarroako ikastolentzat izango da.
- 20.000 auto sartzeko tokia dago.
- Igeri-lekuan kanpina jarriko da.
- Zirkuitua goizeko 9.30etan irekiko da.
- 2.500 bazkari emateko tokia dago.
- Lanerako 2.000 pertsona komeni dira, oraingoz 1.600 daude.
- Zirkuituan zehar zazpi zerbitzugune jarriko dira.

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE


7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea, 30 Tfnoa: ARRASATE 79 89 89



Futbito-txapelketa

Zaldibarko futbito txapelketan izena emateko epea amaitu da eta iaz baino 12 talde gehiago izango dira parte hartuko dutenak, 72 konkretuki. Talde hauek, 18ko lau multzotan banatuko dira txapelketa jokatzeko. Txapelketa, Maritxu biharamunean, Urriaren bostean, hasiko da eta Zaldibar eta Iturripeko kantxa berrietan jokatuko dira partiduak.



Aurkezpeneko partidua

Larunbatean, arratsaldeko 6etan, Musakolako kiroldegian, Centraljet-Euskal Air saskibaloitako taldeak aurkezpeneko partidua jokatu du Muebles Martin talde donostiarraren aurka. Talde hau iazko bigarren mailako txapelketa izan zen eta diru-faltagatik gelditu da lehenengo mailatik kanpo. Beré iazko jokalaritza onena, Albaro Coca, Bilboko BBKra joan den arren, aurtengoan ere txapelketa gelditzeko aukera handia dute, egindako fitxaketa berriek, Etxalar eta Goikoetxearenek batez ere, ondo ziurtatzen bait dute taldearen maila.


Hurrengo partidua

Beasaindarrek, joan den astean Atxabalpen joku jarritako bi puntuak eraman zituzten. Izagirrek, mondragoetarren entrenatzaileak zioenez, Goierrikoek oso partidu ona jokatu zuten eta gainera sortutako aukerak aprobetxatzen jakin. Beasaini zorianak bidaltzen zizkion Mondraren entrenatzaileak.

Larunbatean, arrasatearrak Getxora doaz, bertako taldearen aurka jokatzeko. Partidu honi begira, Izagirre baikor ageri zen. "Gure helburua, lau partiduko bost puntu ateratzea da. Getxo taldea, jende gaztearekin osatutako taldea da, indarra baino gehiago teknika menperatzen duen jendearekin. Bizkaitarren futbol-zelaia ere, normalean egoera onean izaten da. Baldintza horiekin punturen bat eskuratzea normala izango litzateke, dena dela ezin gaitzke fidatu eta partidua seriotasunez jokatu dugu".

Mondran ez dago aparteko nobedaderik. Maturana eta Inazio oraindik lesionatuta daude eta larunbatean ez dira jokatzeko moduan izango. Txosa, Iban eta Morenoren kasuak desberdinak dira, erdi-lesionatuta badabilta ere larunbaterako seguruenek prest izango direlako.

Argi dagoenez, Izagirre eta bere mutilak, nahiz eta pasa den igandean partidua galdu, Getxotik zerbait ekartzekotan daude.



ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea, 1 -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15

LOGOPEDA Psikologo klinikoa

(Comillas-eko Unibertsitate Pontifizioan)

Hizketa eta mintzairaren
diagnostiko eta
tratamendua

M^o Jesus Urzelai Ondona

15. Poligonoa, 3^o Ezk. (Irakasle Eskolaren aurrean)
ESKORIATZA Tfnoa: 79 06 63

MARILO ANSOATEGI

Kirolean apal-apal

PODIUMA



Marilo Ansoategik ez zuen aldizkariko orrialde honetan irteko batere gogorik, "Beno, beno... guk ez dugu kirola egiten aldizkarian ateratzeko, gustatzen zaigulako egiten dugu bakarrik. Gainera, guk egiten duguna, beste edozeinek egin dezake".

Pelmada eman eta gero, Marilori Santiago de Compostelara egin duten bidaiaren berri ematea beste erremediorik ez zitzaion gelditu. Izan ere, senarrak eta biek mendiko bizikletak hartu eta bost egunetan, Arrasate eta Santiago de Compostela Santiago artean dagoen bidea egin zuten. "Entrenatuta egonez gero eta bakoitzak bere martxa hartuz gero, ez da oso bide zaila".

Entrenatu, ia egunero entrenatzen da Marilo. "Eguraldi txarra dagoenean ez naiz ibiltzen, ez delako disfrutatzen. Eguraldi onarekin mendiko bizikleta oso atsegina da. Dena dela, bizikletan baino, mendian oinez gustorago ibiltzen naiz". Hori horrela izanik, arraroa ere egiten da Compostelara arteko bidaia egitera animatzea. "Senarrari segilzearren da. Senarra, gustora baino gustorago ibiltzen da mendiko bizikletan".

Nahiz eta berak besterik esan,

mendiko bizikletan ibiltzea ez da bakarrik senarrari gusto egitearren izango. Orain urte batzuk, oraindik mendikoarena asmatu barik zegoenean, Marilo eta senarrak Geronatik Hendaiara arteko bidea egin zuten, hamasei-hamazazpi etapetan. "Antolatutako gauza bat izan zen, autobusean Gironaraino eta gero, Pirineotan zehar, Hendaiara bueltatu. Esperientzia polita izan zen. Orduan gelditu nintzen lehen mendiportu bat igo ezinik". Beranduago ere, Marilok kirolaren alde gogorra ezagutzeko aukera izan du, esaterako Deba Garaiko martxa egiterakoan lurjota gelditu zenean. "Aurretik zihoazen gazteei jarraitu nahi izan genien. Niretzat erritmo biziégia zen hura, eta bapatean pausurik ezin emanda gelditu nintzen. Gero bai, zerbait jan eta errekuaratu nintzen. Jakina, bakoitzak bere martxa eraman behar du".

◆ Pilota: seitik bost

Emaiza onak lortu zituzten Arrasateko pilotariek klubaren arteko txapelketaren bigarren ihardunaldian. Gazteen taldean hiru partiduak irabazi zituzten Eskoriatzako pilotarien aurka (18-4 alebinetan, 18-14 infantiletan eta 18-7 kadeteetan). Nagusiek, Aretxabaletako UDAREN aurka jokatu zuten eta juniorrek galdu zuten bakarrik (22-20 jubeniletan, 14-22 juniorretan eta 22-8 seniorretan).

◆ Xake-liga laster hasiko

Gipuzkoako xake-txapelketa, urriaren Sean hasiko da Arrasateko taldeen artean. San Andresko xakezale elkarteak lau talde aurkeztuko ditu aurten. Bat preferente mailan, beste bat lehenengo mailan eta bi bigarrenen.

◆ Futbito-talde federatua

Aurtengo denboraldian, futbito-talde bat izango da Arrasaten.

Gipuzkoako talde gehienak Donostialdekoak direla kontuan izanik, Arabako ligan jokatzeko erabaki dute talde honetako partaideek.

◆ Txirrindulari-lasterketa

Larunbatean, Mikel Deuna txirrindulari saria izango da Oñatin, lehenengo eta bigarren mailako afizionatuen artean.

◆ Eskubaloi taldea Gasteizera

Larunbatean, Gasteizen jokatu du arrasateko eskubaloi taldeak Gure Auzune taldearen aurka. Talde hau, Musakolan izan zen aurreko asteburuan, arrasatearren aurkezpeneko partiduan. Beraz, arabarrek egindako bisitaren itzulera izango da larunbatekoa.

Eskubaloiarekin jarraituz, beste norbait aurkitu arte, Jesus Mari Herrero izango da gazteen taldearen entrenatzailea.

comercial
san juan

Garibal, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

“Atleta-oina” gaitza

Udako oporraldia amaitu ondoren, igerileku, dutxa eta jantzitegi publikoetan ibili ondoren, maiz agertzen da “atleta-oina” deritzon gaitza. Jakina da onddoak leku hezeetan ugaltzen direla, eta horrela sortzen da gaitz hau: mikosi honek batez ere oinetan izaten du eragina.

Beronen ezaugarriak: azkura, gorritasuna, usain txarra eta askotan mingarriak diren pitzadura edo fisurak behatz artean.

Esan bezala, hezetasunaz eta beroaz erraz ugaltzen dira onddo hauek, eta normalean kutsaduraren bidez geureganatzen ditugu, ura eta heze-



tasuna dagoen leku publikoetan oinutsik ibiltzen garelako. Beraz, horrelako tokietan beti txinalko edo txankletak erabiltzea oso gomendagarria da kutsadura-arrisku hori gutxitu edo baztertzeko. Ez da gaitz larria eta tratamendu erraza du gainera, gaur egun oso produktu eraginkorrak bait ditu-

gu.

Lehenengo neurria, oinetako egokiak erabiltzea da, hau da, freskoak eta ondo aireztatuak, oinetan ahalik eta izerdi gutxien izan dezagun.


Ez dago esan beharrik garbitasuna garrantzi handikoa dela: oinak ondo garbitu ondoren, ondo lehortu behar dira, batez ere, behatz

tarteak, eta gero pomada aproposen bat ipini bertan, egunean bi bider gutxienez.

Onddoak oinetako eta galtzerdietan gera daitzkeenez, egokia litzateke, era berean, antimikotikoren batez hautseztatzea.

Neurri guzti hauek hartuz gero, sendaketa garrantzurik dagoela esan genezake. Berriz ez agertzeko, ordea, tratamendua luze samarra izatea komeni da, eta senitartekoen kutsadura eragozteko, beharrezkoa da garbitasunerako erabiltzen diren tresnak —lehortzeko oihalak, batez ere— afektatuak bereak bakarrik erabiltzea.

Eukeni & Arantxa



SASIAIN sport

Errepide eta mendiko bizikletak

AUKERA HANDIA


Deba Garaiko bizikleta-denda

**Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63
ARETXABALETA**



Batuta

Ignacio Gallastegi



Ignacio Gallastegi eta Arantza duela hogeitamabi urte ezkondu ziren. Ordutik hona, urtero Operaren denboraldia izan denean, Bilboko Arriagarako bidea elkarrekin egin izan dute. *"Ezkondu artean inoiz ez ginen elkarrekin operarik ikustera joan. Eztei-bidaia aprobetxatu genuen, Madrilen Alfredo Kraus ikustera joateko. Harrez gero, makinatxo bat ikusi ditugu, baita errepikatuak ere"*. Jende arruntarentzat, behintzat musikarekiko aparteko zaletasunik ez dugunontzat, opera aspergarria suerta daitekeen moduan, bikote honentzat beti da bizigarri. *"Nahiz eta opera bat bi alditan ikusi, sekula ez da berdina izango. Aktore eta kantarien lana, dramatizazioa, jantziak, dekoratuak eta beste hainbat gauza beti desberdinak dira. Opera bat, Pavarotti edo Placido Domingok kantatu, izugarri aldatzen da. Biak dira oso onak, baina estilo desberdinak dauzkate. Operen gainontzeko osagaiekin ere, gauza bera gertatzen da; beti dago zerbait berria"*.

Hogeitamabi urteren buruan, gi-

zartean aldaketa ugari eman dira. Era eta aldi berean, operan ere aldaketa asko nabaritu dituzte senar-emazteek. *"Antzokietan dauden kategoria guztiak pasatu ditugu. Garai batean, behean jartzea zaila eta garestia zen. Diru gehiegi ez geneukanok atzeko partean esertzen ginen. Orain, ordea, gauzak aldatu egin dira, toki batean edo bestean jarrita ez dago diferentzia handirik. Alde horretatik, opera herriari gerturatu egin zaio"*. Gerturatze hori ondo ikusten dute Zarraoa dendakoek, etiketak desagertu egin direlako eta opera jende gehiagori iristen zaiolako. *"Telebistak eragin handia izan du horretan, baina zuzenean askoz ere politagoa da. Hemen ere zaletasuna gehituz joan da. Lehen, Arrasatek biok bakarrik joaten ginen operak ikustera; orain, kuadrila majoa joaten da. Baliteke hemendik urte batzuetara autobusak antolatu behar izatea..."*.

Txio txioak

■ "Neocantes" en kontzertua

Gaur, hilak 27, San Joan Bataiatzailearen parrokiaren *Neocantes* boskotearen lana entzuteko aukera izango da. Ahozko boskote hau duela hamar urte osatu zen, eta izugarrizko izen ospea ona du. Patricia Paz eta Henar Alvarez sopranoek, Luis Vincent kontenoreak, Cesar Carazo tenoreak, eta German Torrellas baxuak osatzen dute boskotea. Boskotearen zuzendaria, baxua bera da, German Torrellas.

Kontzertuari arratsaldeko zortzietan emango zaio hasiera, bi zatitan banatuko da, eta XV. eta XVI. mendetako lanak kantatuko dituzte. Taldeak eskaintzen duen musika Errenazimendu eta Barroko garaietakoa izan arren, geroz eta jarraitzaile gehiago ditu gazteen artean, kantatzen dutenean interpretatu egiten dutelako eta ondorioz entretenigarria bihurtzen delako.


■ Goikobalu Iparraldera

Ingande honetan *Goikobalu* Abesbatza Iparraldera joango da, Donapaleura. Bidaia honen helburua Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea osatzea da. Ekitaldiari amaiera emateko Bilboko *San Antonio* orfeoia, Lezoko *Txinparta* Haur Abesbatzak, *Goikobaluk* eta Iparraldeko beste sei taldek elkarrekin kantatuko dute, Javier Bello-Porturen zuzendaritzapean.

Bukatzeko, gogoratu Besaiden jarri berri den monumentuaren inguruan antolatutako ekintzen artean, *Goikobalu* Abesbatzak larunbatean kantaioa eskainiko duela mendigoizaleen ohorez, eguerdiko ordubatean.

"Nahiz eta opera bat bitan ikusi, beti aurkitzen zaio zerbait berria"

PUB HAIZEA



ENARA
OSAGARRIAK

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate

Haur eta gazte psikologiaz liburu interesgarria

Gure inguruan izaten diren gertakariez iritzia emateko ohitura dugu: "logikoa", "naturala" edo antzeko hitzak erabiltzen ditugu begi-bistako iruditzen zaigunaren aurrean. Baina Fisika, Kimika edo Biologian eginiko ikerketen emaitza harrigarriak ikusi ondoren, apalago jokatzen ikasi dugu, hots, ebidentziaren aurrean mesfidantzaz jokatzen. Baina berdin jokatzen ote dugu giza zientzietako gaiekin, psikologiarekin, adibidez?

Dena dakigu haur eta gazteen psikologiaz, ala zuhurrago, kontu handiagoz, jokatu beharko ote genuke gai haue-taz geure iritzia ematerakoan?

Aurkeztuko dizuegun liburu hau psikologiaz ari da. Haur eta gazteen psikologia aztertzen du, zenbait alderdi ezberdinetatik. Hona hemen beroni buruzko zenbait argibide:

Erreferentzia bibliografikoa

Izenburua: Cuestiones y retos de la Psicología
 Idazlea: Eduardo Marti Sala
 Argitaletxea: Laia, Cuadernos de Pedagogía
 Argitalpen-data: Bartzelona, 1988

Liburuaren helburuak

Idazleak hiru helburu lortu nahi ditu liburu honen argitalpenarekin:

- 1) Psikologian espezializ-

zatu ez den giza taldeari gai hauez eginiko zenbait esperientzia, teoria eta emaitza helaraztea.

- 2) Intuitiboki psikologiaz dakiguna eta psikologi zientziak ikerketen bidez lortutako emaitzak kontrajartzea.

- 3) Modu batera zein bestera hezkuntzaz arduratzen den kolektiboari dagokion zenbait proposamen eta hausnargai luzatzea.

Liburuaren egiturapena

Liburu honetan 32 gai desberdin aurkituko ditu irakurleak. Gai guzti hauek 5 multzo nagusitan batu daitezke; hona hemen hauetariko bakoitza:

1. Zer da psikologia?
2. Haurra ezagutu

3. Aprestua eta eskola
4. Jolasa, aisialdia eta dibertsioa

5. Psikologia, hezkuntza eta teknologia berriak.

Bost multzo hauen barruan gurusoak, irakasleak eta, nola ez, gizartearen talde handi bat kezkatzen dituen zenbait gai aurkituko dugu. Esate baterako, Bideojolasak; Haurra eta Ordenadorea; Positiboa izan daiteke errakuntza?; Dakiguna erabiliz, gai berriak ikasi; Eskolaz kanpoko prestua, etab. luzea.

Beraz, liburu gomendagarria, bai gai hauek zerbait dakienarentzat, baita psikologiaz ezer gutxi dakienarentzat ere.

Klarion taldea



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
 Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Gipuzkoako Mountain-bike txapelketa

Kilometroak-91 Bergara

Zapatu honetan, arratsaldeko 4.30etan, kirol honen zale guztiok parada polita izango dugu Bergaran; beraz, badaukagu nora joan larunbat arratsaldean. Ikuskituzun polita antolatu digu Lokatza Txirrinduen Elkarteak, Kilometroak 91 programaren barruan.

Izena emateko epea, larunbatean bertan hasiko da, arratsaldeko 3etatik aurrera, Bergarako herriko plazan, San Martin plazan. Parte hartzearen 14 urtetik beharake ez dute ezer ordaindu beharko, baina gainerako partaideek 500 PTA.



Txapelketa edo lehiaketa honetan federatuek nahiz federaturik ez daudenek parte hartu ahal izango dute.

Kategoriak:

Gizonezkoak:

1. 14-18 urtekoak, zirkuituari bi bira (20 km).
2. 18-35 urtekoak, zirkuituari bi bira (20 km).

3. 35etik aurrera, zirkuituari bi bira (20 km).

Emakumezkoak:

Kategoria bakarra: 14 urtetik gorakoak.

Txapelketatik kanpo:

14 urte artekoek parte hartu ahal izango dute; gutirtira 10 km egin eta ez da

txapelketa izango.

Zirkuiturari buruz ezer gutxi adierazi digute gure lagun bergarrek: San Martzial, Lamaño-Etxeberri... inguru horietatik eroango ei gaituzte.


Badakizue zapatu arratsaldean, besterik ez bada ere, bertara hurbildu eta parte hartu edo ikusteko ikuskituzun polita izango da. Gainera, Gipuzkoako Txapelketa denez, bizikletari ezagunak ikusi eta ezagutu ahal izango ditugu.

Lehian sartu nahi ez baduzu, besterik gabe, parte har dezakezu eta kito. Zorte on denei!!

K. U.

EUSKAL DANTZA IKASTAROA

- Ostiraletan 7etatik 8.30etara.
- Urriaren 11tik abendura arte.
- Lore Gazteak dantza-taldearen eskutik.
- 14 urtetatik gorakoentzat.
- Plaza mugatuak.
- Matrikula doan.
- Inskripzioa: Gazte Inf. Bulegoan.
- Tfnoa: 77 00 65



Aste gazte

"Aspertu arte esaten zaigu mundua gazteen eskuetan dagoela, baina gutxi adierazten da noraino den mundu hori astun".

Obabakoak

Ikastaroak

• Deba Garaiko Eskualde-Komiteak antolatutako honako bi ikastaro hauetarako inskripzio-epa zabalik dago: a) Bideogintza eta aplikazio-didaktika, Eskoriatzako Irakasle Eskolan. b) Aluminio eta PVCzko arotzeria, Oñatin.

• "Urtxintxa" eskolak aisialdi arloan ikastaro-eskaintza zabala aurkezten du: begiraleak, zuzendariak, gazte-dinamizatzaileak, monografikoak, etab. Bilbon, Donostian edo Iruñean. Astean zehar edo asteburuetan barnetegian. Matrikula-epa: urriak 4.

• Gipuzkoako Goi-Mendi Eskolak Haitz Eskalada

ikastaroa antolatu du, hasiera eta hobekuntza mailetan. Egunak: urriak 19-20 eta 26-27. Mendi Federatu Txartela edukitze ezinbestekoa da. Matrikula-prezioa: 11.000 PTA.

Bekak

• Lan-esperientziarik gabeko unibertsitate-ituludunentzako bekak. Gaiak: aholkularitza juridikoa, komertziala, informatika, informazioa, ikerkuntza, pertsonala, etab. Epea: urriak 11.

• Herri-administrazioaren alorrean prestatu eta ikeritzeko lankidetzak. Iraupena: 10 hilabete. Diru-kopurua: 1.250.000 PTA. Eskatzaileak: Ondoko ikasketak hauetan lizentziatuak: Ekonomia eta Enpresa-Zientziak, Zientzia Politikoak edota Zuzenbidea. Epea: urriak 16.

• Maila ez-uniber-

tsitarietako ikasketetarako bekak: eskolaurrea, OHO, Hezkuntza Berezia, HHO-EPA, BBB eta UBI, IEE-REM I eta II, ikasketak erlijiosoak, hizkuntz ikasketak (ikastetxe ofizialetan), arte aplikatu eta lanbide-artistikoen ikasketak eta musika kontserbategietako hasiera eta erdi mailakoak. Epea: urriak 17.

Lehiaketak

• "Becerro de Bengoa" III. Literatura saio-saria. Gaia: Euskal Herriko pentsamendu, historia edo kultura. Modalitateak: euskaraz eta gazteleraz. Sariak: modalitate bakoitzeko 600.000 PTAko sari bana. Lanak aurkezteko epea: urriak 7.

• Gipuzkoako "Cafe Teatro" jaialdia iragartzeko kartel-lehiaketa. Lanak koloretan eginak izango dira. Sari bakarra: 25.000 PTA.

Lanak aurkezteko epea: urriak 11.

Jaiak

• Asteburu honetan, 27tik 29ra bitartean, "San Migelak", Garagartzako jaiak. Kalejirak, erromeriak, dantza-erakusketak, txerri-harropaketa, bertsolariak... eta, gustokoak badituzue, buzkantzak Auzoetxean.

• Asteburu honetan ere, Besaideren birgaikuntza edo errehabilitazioa ospatzeko ekitaldi ugari antolatu da; igandean bertara hurbiltzen bazara, jai-giroaz gozatzeko aukeraz gain, monumentu berria ikusi ahal izango duzu.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

ETXEBIZITZAK

- Lokala alokatuko nuke ofizina bezala erabiltzeko. Tfnoa: 79 93 06.
- Gela alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi neska behar dira pisua osatzeko Bilbon, (Logela konpartitua). Pisua handia eta polita da. Pertsona bakoitzak 15.000 PTA. Tfnoak: 79 24 08 Eva, eta 79 36 54 Maitane.
- Konpartitutako pisu alokatuan logelarik libre badaukazu, dei egin 77 06 90 tfnora.
- Bergarako bi neskek pisua osatu nahi dute Irunean. Tfnoa: 76 11 11.
- Ikkasle pisua aurkitu nahi nuke Donostian. Tfnoa: 79 99 82 (Goizez). Miren.
- Bi ikasle pisu bila dabilta Donostian. Dei egin 79 53 82 tfnoa.ra bazkalordu edo afalorduetan.
- Erguinen etxebizitza salgai. Amueblatua, gas naturala, 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrekoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- Bi ikasle behar dira Donostian pisua osatzeko. Dei egin 79 55 23 (Santi) edo 74 13 07 (Jon).

LANA

- Klase partikularrik ematen dira (Fisika, Kimika eta Matematika). Dei egin 77 13 95 tfnora.
- Andre euskalduna etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- Euskara, ingelesa eta OHoko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 90 08.
- Aretxabaletako "Josteko" Oihaldendak esperientzia duen jostuna behar du. Tfnoa: 79 80 90.
- Armoniako klaseak ematen dira. 1. 2. 3. eta 4. kurtsoak. Talde txikiak 91-92 ikasturtea. Tfnoa: 79 27 88. Miriam.

- Edozein lan egiteko prest nago. Tfnoa: 79 61 05.
- Emakumea behar da umea zaindu eta lanak egiteko. Tfnoa: 79 13 04 eta 78 23 93.
- Klase partikularrik ematen dira: euskara, gaztelania eta inglesa. Tfnoa: 77 04 98.
- Itzulpen eta interpretari lanetarako kolaboratzaileak behar dira. Edozein hizkuntza. Tfnoa: 77 04 98.
- Emakumea etxeetan lan egiteko prest. Tfnoa: 79 84 66.
- Alemanezko klase partikularrik ematen ditut. Tfnoa: 79 78 75.
- Itzul eta sor saileko liburuak salgai. Merke eta berriak. 9-13 urte bjtarteko aurrentzat. Tfnoa: 79 80 91. Ander.
- Lanak makinaz pasatzen dira. Tfnoa: 79 78 75.
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 58 80.
- Ingeleseko klase partikularrik ematen dira. Talde murritzuetan. Dei egin arratsaldez 77 05 77 tfnora.

- Seat 127a salgai, SS-M, errebisioa pasatua, estra batzuk ere baditu. 100.000 PTA. Tfnoa: 76 61 05.
- Paseoko bizikleta bi salgai ditut 15.000 PTA. tan bakoitza. Dei egin 79 99 82 tfnora. arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Ur-berogailua egoera onean salgai. Tfnoa: 79 59 72.
- Adria TY GRA karabana (4,10 m.) salgai. Lau pertsonarentzako tokia, hozkailua etab. Garajea edukitakoa. Tfnoa: 79 93 06.
- Ia berria den Atari 2600 kontsola bideoa salgai, 160 joko ditu. Tfnoa: 78 31 51.
- Amstrad Spectrum MSX eta PC-ko jokoak salgai. Cassete-ko jokoak prezioa: 1-150, 2-200, 3-225 eta hortik aurrera 25 PTA gehiago joko bakoita. PC-ko jokuen prezioa galdetu (Oso prezio interesgarriak). Interesatuak dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.
- Ia-ia berria dagoen dibujorako mahala salgai. Tfnoa: 79 47 50.
- Egoera onean dagoen R5 GTLa salgai, ITVa pasatuta, SS-G (Merke). Tfnoa: 79 37 40.
- Hiru logela oso egoera onean salgai. Prezio onean. Tfnoa: 77 04 98.

SALEROSKETAK

- Izozkitegiak erakusteko bitrina, Salbat labea estrenatu barik eta jogurtak eta esnea erakusteko bitrina salgai oso prezio interesantean. Dei egin 79 23 58 eta 77 00 91 Tfnoetara. Rosi.
- Lau edo bost lagunentzako kanping-denda salgai, aluminiozko tuboekin. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.

DENETARIK

- Norbait, larunbatak 13, arratsaldean, delitu zidan galdutako urrezko eskumuturrekoagatik eta ez nengoen etxean. Mesedez dei egin berriro eta eskerririk asko (eskumuturrekoak harri urdin batzuk zeuzkan). Tfnoa: 79 28 80. Axen.
- Zorionak Kris, Arantxi, Felix eta Iñaki! Zer moduz sentitzen zarete gurasoak izanda? Zuetaz pentsatzen dut maitekero. Sharryn. N.Y.
- Zorionak Julia eta Altor Alberdi aitamel, eta ongietorria Mikeltxori! Sarah eta Iñaki.

ARRASATEN HILDAKOAK

Asunción Irasuegi Ortueta,
irailaren 20an. 81 urte.

Kepa Manteca Sebastian,
irailaren 20an. 14 urte.

Lucio Berezibar Galdos,
irailaren 20an. 76 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Anjelita Uribeetxebarria

Naroki liburu eta bitxidendakoa

- Liburuak, irakurri ala saldu? Irakurri, baina ez daukat astirik. Momentu honetan, saldu.
- Eraztunak ala pultserak? Biak.
- Urrea ala zilarra? Urrea
- Gizonak, guapoak eta pobreak ala zakarrak eta aberatsak? Ez bata eta ez bestea.
- Betaurrekoak ala lentilak? Lentilak
- Txuleta ala legatza? Biak. Momentuaren arabera.
- Berba egin ala entzun? Entzun.
- Igande goizetan, meza ala ohea? Mendia.
- Fregatu ala plantxatu? Biak egiten ditut.
- Dutxa ala Bainua? Dutxa.
- Zapatak, takoidunak ala gabeak? Takoigabeak.
- Bertsoak ala Opera? Bertsoak nahiago.
- Trikitixa ala tangoa? Trikitixa
- Kamisoia ala pijama? Kamisoia
- Erosketak, denda txikietan ala handietan? Bietan egiten ditut.
- Alkate, Xabier Zubizarreta ala Nekane Iglesias? Xabier.
- Muxu bat eman ala kariziak egin? Muxu bat eman.
- Hamaiketakoan, tortila-pintxoa ala pastela? Tortila-pintxoa.
- Siesta ala paseotxo bat? Biak.
- Nobela ala poesia? Nobela.
- Boligrafoa ala arkatza? Biak.
- Begiak, pintatuak ala pintatu gabe? Ondo margotuta badaude, gustatzen zaizkit. Baina begiak politik badira pintatu barik ere bai.
- Oparitzeko, liburu bat ala lore bat? Biak dira oso politik. Baita urrezko bitxiak ere.




Bertsotan

"Maritxu Kajoi"

Txikitero guztiei milaka goraintzi Maritxu Kajoi denik ezazu ahantzi eguneroko praka zaharrak erantzi eta traje berriak ta korbatak jantzi.

Maritxutan egizu aterrizajea ea aguantatzeko duzun korajea nahiz ta ardoz zikindu gauean trajea askoz okerragoa goizeko ajea.

LENIZKO BERTSO-ESKOLA



Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

URKULUn

URTITXO

Edari eta bokatak

(Urtegiaren ondoan)



Santa Barbara, 1926ko San Juanetan

1

1926ko San Juanetan gaude, zehazkiago esanda, orduko jaietan Santa Barbaran jartzen zen zezen-plazan.

Talde handi

honetan, jende ezagun asko ikus daiteke.

Antonio Armengot da aurrean, erdi-erdian, kapela eta

betaurrekoekin, dagoen gizona. Armengot, Biteri eskolako marrazketa-irakaslea izan zen. Honen inguruan dauden neskak, **Rosarito Goñi**, **Esperanza Resusta**, **Josefina Luco** eta **Blanquita Labajos** dira, besteak beste. Azken hau orduko Arrasateko medikuaren alaba.

Luison haginlari edo dentista da argazkian agertzen den beste gizon bat. Baita **Rikardo Azkoaga**, Zerrajerako zuzendaria, **Alejandro Altuna** eta **Eugenio Abarrategi**,

Martinbixi ere.

Goian, *Hotel La Mondragonesaren* iragarkia ikusten da. Hotel hau, **Jose Maria Resusta** kalean zegoen, **Oraingo Iturriotz** kalean. Herriak, *Kaxuena* ezizenarekin ezagutzen zuen eta bertako nagusietako bat, **Maria Iriondo Kaxo**, zen. Hotela itxi ondoren, **Toki-Ona** taberna egon zen bertan. Gero, etxea erre egin zen. Orain, **Onaindia Goxotegia** dugu hor.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

29 IGANDEA

9.30 **Mondra Sport.** Getxo-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena, aurreantzean igandero ikusgai izango duzen saio berezia.



30 ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan **Berriak.** ATBren albiste emanaldia.

9.15 **Mondra Sport.** Igande gaueko saioaren errepikapena.

1 ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan **Berriak.** Egunean zehar jasotako albisteak.

9.15 **Erreportaiak.** Aste honetan, Besaideko monumentu berriaren inaugurazioaren inguruan antolatuko diren ekintzak izango ditugu aztergai.



2 ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan **Berriak.** ATBren albistegia.

9.15 **Txotxongiloak.** Larunbatean Amaia antzokian Taun-Taun taideak eskainiko duen *Bi Kate* obra izango duzue ikusgai.

3 OSTEGUNA


8, 8.30 eta 9etan **Berriak.** Egunean zehar bildutako albisteak.

9.15 **Musikaldia.** Ostiralean San Juan Parrokian Goikobalu abesbatzak burutuko duen emanaldiaren laburpena.

4 OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan **Berriak.** ATBren albistegia.

9.15 **Erretratoa.** J.R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa saioa. Gonbidatua: Jose Mari Velez de Mendizabal, idazlea, Arrasate Press-eko kolaboratzailea eta ATBko *Zenbat buru hainbat aburu* saioko zuzendari eta aurkezlea.



Onduline



TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1. Tfnoa: 79 23 18

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64


BAZAR
TOKI ON



H A U R T X O A

Arrasate Pasealekua, 4
ARRASATE Tfnoa: 79 14 90

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi-zerbitzua



Getxo-Mondra. Igandean, 9.30etan

Iragarri bezala, pasa den igandean ekin genion Mondra-Sport berezia emititzeari. Hortxe izan genituen estudioan Jose Luis Etxeberria eta Jon Andueza, Mondra-Beasain partiduak emandakoa luze aztertzen.

Igande honetan ere, 9.30etan, Getxo-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena izango duzue zuon pantailetan. Ez ahaztu, zain daukazue futbola ATBn.

Telebegi

Arrasate Telebistak erronka handi bati erantzun nahi dio oraingo honetan egin berri dituen aldatetekin eta hemendik aurrera etorriko diren guztiekin (pentsatu baino gehiago izango dira, ziur egon): egunerokotasuna, ordutegiak, itxura... Ez da ahalegin makala izango, ez.

Neure buruari galde-tuta ea pena merezi duen ala ez, baietz erantzuten dut, horrela, ziplo, birritan pentsatu gabe. Pixkat pentsatu ondoren, ordea, hasten naiz otsoari belarriak ikusten: pribatuen konpetentzia, gure baliabide-eskasia, gutako zenbaiten nekea.

Honako honek ez du hausnarketa sakona izan nahi. Baina gustatuko litzaidake inoiz galduko ez bagenitu hasierako kementa eta adorea, eta has-tapenetik Arrasateko jendeak eman digun laguntza. Itxuralda gaitzezke edo lehengoari eutsi, baina jendea gurekin ez bada-go, gureak egin du.

Horrela bada, animo, zeren gure herritar askok oso begi onez ikusten bait du ATBren proiektua. Hala uste dut nik, behintzat.

KOLDO RODRIGUEZ

Telebelarri

◆ Azken lau urteotan Man-komunitateak aurrerapausu garrantzitsuak eman ditu, dinamika on batean sartu da. Orain ez bezala, karguak talde guztien artean banatu izan ditugu"

Xabier Zubizarretak
Berriak saioan

◆ Gauzak ondo egiteko, nik uste, beste alderdien eritziak kontutan hartu beharko ditugula. Gaur arte gauza batzuk ondo egin diren arren, beste asko hobetu beharra dago"

Jose Mari Loitik
Berriak saioan

Besaideko monumentuaren inaugurazioa asteartean

Emango du zeresanik Besaideko monumentu berriaren inaugurazioak.

Ostiraletik aurrera hainbat ekintza burutuko dira Arrasaten egitarau zabal baten barruan. Gure asmoa ekintza horiek jasotzea da, asteartean, 9.15etan, ahalik eta erreportaia zabalena eskainiz.






ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Armonian eramango duzu bizimodu afektiboa. Ondorioz, gauzen alde ona ikusiko duzu zeure onerako. Esperientzia interesgarriren bat izango duzu lanean.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Venusen eragina hor dago oraindik. Liluragarri egoten jarraituko duzu eta alde guztietan hartuko zaituzte ondo, atsegin egongo zarela. Negozioetarako egun aproposak.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Han-hemenka ibiliko zara eguna joan eta eguna etorri, hainbat eginbehari erantzun asmoz. Pixka bat aztoratuta ibiltzea suerta liteke ondorioz.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Atsegin duzuna egiteko egun aproposak dira datozenak, Taurus, dena zure alde izango duzu. Lan-arloan harreman interesgarriak izango dituzu.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Lan-arloan buru belarri arizara eta aldaketaren bat datorrela antzematen da. Ondo merezitako aukeraren bat izango duzu. Sormenerako irudimenik ez zaizu faltako.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Gustoko gauzetan ez omen dago aldaparik eta gogor lan egin beharko duzu desio duzuna lortzeko. Haizea hartzea behar beharrezkoa izango duzu burua argitzeko.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Aise-aldian lagun ugari egingo duzu komunikaziorako izango duzun kapazitatearen ondorioz. Gauza asko egin nahi izango duzu. Patxadaz hartu, nahastea suerta liteke eta.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ingurukoekin ondo komunikatzeko gaitasuna izango duzu datozen egunetan. Borroso zeuden ideiak argitu eta erabakiren bat hartu ahal izango duzu. Urdaila zaindu.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Ziurtasun osoa daukazu zeuregan eta begi bistan dago. Norbaitek frogan jarri nahi izango zaitu. Erne egon zaitetz beraz, eziozu laga bere nahia betetzen.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Eraginkor egongo zara eta ario guztietan aritu nahi izango duzu. Lan-eskaintza interesgarriren bat suerta liteke, etorkizunerako proposa izango duzuna.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Helburu garrantzitsuak daukazu buruan gauzatu ahal izango dituzunak. Gauza berriak egiteko gogoia etorriko zaizu ondorioz. Lagunen batek zoezer eskainiko dizu.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Urduri samar zabitza daramazun bizi-moduaren ondorioz. Perezarako eskubidea ere ba omen dugu. Eser zaitetz bizpahiru ordu egonean egoteko; on egingo dizu egoera aztertzeak.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

HELDUENTZAKO TXOTXONGILOA



**Irailak
28
Larunbata**

**Gaueko
10.30etan**

**Amaia
antzokian**



iKER



SUKALDE-ERAKUSKETA:

Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE